

BERTSOLARITZA

Hizkuntza da gure herriari nortasun berezia ematen diona eta hizkuntzaren barnean herri literatura motetatik bertsolaritza da nabarmentzen agertzen zaiguna.

Euskara idatziaren hasieretatik nabarizaigu bertsogintzarako arte ederra. 1545ean Bernard Etxeparek argitara eman zuen liburuak erakusten duenez, bertsogintzarako joera aspalditik zetorren nonbait, zeren lehen liburu inprimatu horrek erakusten duen jatortasuna ez baizen bat-batean sortarazia. Lehenik ezagutu ziren Mondragoeko eresiak ere hori adierazten digute eta Joanes Etxeberri Ziburukoak argi utzi zigun bere idazlanak bertsoz jartzen zituela euskaldunak hortarako zuten zaletasunagatik.

Baina bat-bateko bertsoginta, hitzetik hortzera, nor gehiagoka eran, lztuetak eman zituen berrietatik ezagutzen dugu. Beraz, ezta hain zaharra bertsolaritzaren historia, ezagutzen dugunaren arabera.

Nor-gehiagokako desafiozko haiekin batean satiraz edo propagandaz idazten ziren paperetan ere erabiltzen zen bertsoa, hara nola Tolosako paskiñak hamazazpigarren mendean eta bolanderak karlisten gerratean. Mendekatzez edo isekaz ere erabili da, hortarako ofiziozko bertsolariari norbaiten edo zerbaiten kontra gaia emanaz egiten zituztenak.

Era batera edo bestera, herriagan arrakasta handia zuen bertsolariak, baina hala ere, joan zen mendeko kultur gizonak mespreziaturik eduki zuten bertsolaria, ideen sakontasuna eta hizkuntzaren edertasuna gordetzen ez zuten ustean. Baina, gure mende hontan hasi zen herri literaturazko arte hori behar bezala baliatzen. Hortan inoren izenik ematekotan, Manuel Lekuonarena ezin isildu, bere ikerketeri esker bertsolaritza tokatzen zitzaion mailara jaso zuenez. Eta, horren ondo-

renez, Aitzol izan zen bertsolari txapelketak antolatuz berbizkundera ekarri zuena. Gaur egun, inork ez du jarten zalantzarik bertsolaritza-ren balioaz.

Bertsolari txapelketak ekarri du herriagan bertso zaletasuna irau-narezteaz aparte hizkuntza bera ere gehiago baliatzea; hizkuntza denez bertsoarako tresna. Baina, era berean, txapelketaren bultzadak bertsolari berriak sortzeko bideak idekitzea.

Bertsolaritza baliatzeko oinarrizko aburuak geroago eta zehatza-goak dira eta txapelketetarako epai-mahaiak kontuak hartu behar ditu muinezko diren puntu guziak; adibidez: bertsolarietara ematen zaien gaia zehatz erabili beharra ahalik sakonen eta irudimenez aberats; hizkun-tzaren partean gauzak esateko erak edertasunez eta poesi zentzuz; gai bakoitzerako ematen zaien aukeran, bizpahiru bertsoetan osatzeko, saioaren egitura gorde beharra, sarrera egokiz eta gaiaren desarroiloa jarraituz bukaera on batez eskaintzea, gai guziaren hariari bere lotura emanaz; gainera, neurria musikaren arabera ondo zainduaz, puntuetan pоторik gabe eta puntuok ere ahalik aberatsenak osatuz.

Gaiak, orokorki begiraturik, gizarte giroan garai bakoitzean erabil-tzen denarik loturik dihoaz maizenik, egunean egungo ingurua agertuz. Honegatik, bertsolaritzak, gizaldi bakoitzeko gizarte giroa adierazten du eta historiarako kronika baliagarria zaigu, mendez mende gure he-rriko ideen eta sentipenen lekuko direnez gero.

Helburu horiek kontuan izanik, 1982ko Bertsolari Txapelketaren inguruan, Euskaltzaindiko Jagon sailak eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak zenbait hitzaldi eratu dituzte bertsolaritza berezitasun horiek herriarentzat argiago jartzeko eta ere berean literatur mota hau hobeto aztertuz biziago irauñarazteko asmoz.

Juan SAN MARTIN